

**HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2019/2020 ikasturtea**

**GALERA, HERIOTZA ETA DOLUAREN TRATAERA HAUR  
HEZKUNTZAN**

**Egilea: Rayo Basaguren, Ariadne**

**Zuzendaria: Idoiaga Mondragon, Nahia**

**Leioan, 2020ko maiatzaren 25ean**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: Heriotzaren trataera gizartean eta hezkuntza sisteman 5	
1.1. Heriotza hezkuntzan .....	5
1.1.1 Heriotzaren kontzeptuaren eraikuntza Haur Hezkuntzan .....	6
1.1.2 Dolua .....	7
1.1.2.1 Dolu motak .....	8
1.1.2.2 Ohiko doluaren faseak .....	8
1.1.2.3 Haurren doluaren ezaugarriak .....	8
1.1.3 Heriotzaren eta doluaren pedagogia .....	10
1.1.4 Hezkuntza profesionalen lana heriotzaren eta doluaren pedagogian .....	11
2. Lanaren helburuak .....	12
3. Metodologia eta lanaren garapena .....	12
3.1. Diseinua .....	12
3.2. Lagina .....	13
3.3. Instrumentua .....	13
3.4. Datu bilketa .....	14
4. Emaitzak .....	14
5. Praktika on edo proposamenak .....	17
5.1. Heriotzaren pedagogia edo aldez aurretiko lanketa .....	18
5.2. Doluaren pedagogia edo galera uneetako lanketa .....	19
5.3. Protokolo eta gidak .....	21
6. Ondorioak .....	21
7. Etika profesionala eta datuen babesa .....	24
8. Erreferentzia bibliografikoak .....	24
Eranskinak .....	
1. Eranskina. HHn heriotza lantzeko ipuin eta album ilustratuak .....	2
2. Eranskina. HHn heriotzaz aritzeko jarraitu beharreko printzipioak .....	4

## **GALERA, HERIOTZA ETA DOLUAREN TRATAERA HAUR HEZKUNTZA**

**Ariadne Rayo Basaguren**

UPV/EHU

Inguruko pertsona baten galera edonork bizi dezakeen egoera bada ere gizartean tabuztat hartzen den gaia da eta hau zuzenean islatzen da hezkuntza curriculumean, ondorioz, hezkuntza-profesionalek hutsune handia dute gaiaren trataerari dagokionez. Errealitate honi aurre egiteko xedez, lan honetan Haur Hezkuntzako haurrekin heriotza lantzeko 215 irakasleren kompetentziak aztertu dira lehenik, gero bilaketa bibliografikoan oinarritutako baliabideak ere eskainiaz, heriotzaren zein dολουaren pedagogia lantzeko. Emaitzek, gaian egungo irakasleek dituzten gabeziak identifikatu dituzte bai jakintza eta baita formazio mailetan ere. Ondorio gisa, heriotza errealitatean presente dagoen zerbait dela onartu eta gaia jorratzen hastearen beharraz hausnartu da, haurrak era osasuntsu batean hezi ahal izateko.

*Galera, curriculuma, heriotzaren pedagogia, dolua, proposamen didaktikoa*

Aunque la pérdida de una persona es algo que cualquiera puede vivir, sigue siendo un tema tabú en la sociedad, reflejándose así en el currículo de educación y dejando un gran vacío a la hora de tratar el tema. Con el fin de hacer frente a esta realidad, se presenta una propuesta didáctica para tratar la muerte en Educación Infantil. Para ello, en primer lugar, se han analizado las competencias de 215 profesores, ofreciendo así recursos basados en una búsqueda bibliográfica para trabajar la pedagogía de la muerte y del duelo. Los resultados han identificado las carencias del profesorado, tanto en el ámbito del conocimiento como en el de la formación. En conclusión, y teniendo en cuenta que la muerte es algo que está presente en la realidad, se ha reflexionado sobre la necesidad de aceptar el tema y así empezar a trabajarlo, con el objetivo de educar a los alumnos de manera sana.

*Pérdida, currículo, pedagogía de la muerte, duelo, propuesta didáctica*

Although the loss of a person is something that anyone can experience, it is still a taboo subject in society, thus reflecting itself in the education curriculum and leaving a great void when it comes to dealing with the subject. In order to face this reality, a didactic proposal is presented to deal with death in Early Childhood Education. For this, firstly, the competences of 215 teachers have been analysed, thus offering resources based on a bibliographic search to work on the pedagogy of death and mourning. The results have identified the deficiencies of the teaching staff, both in the field of knowledge and in that of training. In conclusion, and bearing in mind that death is something that is present in reality, it has been reflected on the need to accept the subject and thus start working on it, with the aim of educating students in a healthy way.

*The loss, curriculum, pedagogy of death, mourning, didactic proposal*

## Sarrera

Gure inguruko pertsona baten galera edonork bizi dezakeen egoera saihestezina da, saihestezin bezain unibertetsala, inor ez baitago gertaera honetatik salbu. Hala ere, gaia ekiditen dugu, honek suposatzen dituen sentimendu eta emozioengatik. Ondorioz, gaia tabua bilakatu da, bai gizartean, zein hezkuntza sisteman (Aranda, 2014).

Heriotza, tabua den aldetik, haurren eguneroko bizitzan isilean gordetzen da, honela, heriotzaren eta doluaren ikuskera, garapena eta lanketa zailduz. Egoera honi aurre egiteko xedez, hezkuntza instituzioetan heriotza bizitzako parte gisa lantzeko eta dolu prozesuetan haurrei enpatian oinarritutako laguntza eskaintzeko beharra agertu da.

Lanaren lehenengo ataletan heriotzak gizartean eta hezkuntza curriculumean duen tokia azalduko da. Izan ere, heriotzaren inguruko hutsune handia dago, beraz, Gradu Amaierako Lan honen bidez heriotzaren pedagogia lantzeko ekimena bultzatu nahi da. Izan ere, hezkuntzaren xedea, haurrak bizitzarako prestatzea den aldetik, heriotzaz hitz egitea beharrezkoa da eta irakasleok, haurren erreferente izanik, ikaslearengan eragiteko gaitasuna dugu, beraz, honako bidea harekin egingo dugula transmititzeaz gain, hura posible egiteko ezagutza eta baliabide nahikoa izatea ezinbestekoa da (de la Herrán eta Cortina, 2008). Jarraian, haurrek heriotzaren kontzeptua nola eraikitzen duten eta dolu prozesua nola bizi duten azalduko da, ezinbestekoa baita haurren gaitasunak aintzat hartzea, gaiak hitz egitean, bere ulermen mailara egokitzeke.

Irakasleriak gaiaren inguruan dituen ezagutza, interes, baliabide eta esperientziak ikertzeko xedez, galdetegi bat garatu da. Honetan, Euskal Herriko 215 irakaslek alor honetan dituzten konpetentziak aztertu dira eta, baita beraien irakasle ibilbidean bizi izandako heriotza kasuen aurrean berauek lantzeko lanabes nahikoa aurkitu duten ere.

Bukatzeko, galdetegian jasotako datuetan zein lanean zehar egindako bilaketa bibliografikoan oinarritutako proposamena aurkezten da, irakasleek heriotza egoeretan dituzten gabeziei aurre egitea helburu duena. Honetarako planteamendu bi garatu dira. Alde batetik, heriotzaren pedagogia, egoera gertatu aurretik gelan garatu daitezkeen praktikak jasotzen dituena, eta bestetik, doluaren pedagogia, hots, heriotza egoera batean hurrekin gaiak hitz egiteko gomendioak azaltzen dituena. Lan honen xede nagusia izanik, etorkizuneko galera kasuetan, irakasleentzat heriotzaren gaia jorratzeko unean honakoa baliagarri izatea.

## **1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: Heriotzaren trataera gizartean eta hezkuntza sisteman**

Heriotza eta dolu egoerak saihestezinak dira, hau da, pertsona orok bizitzako une batean edo bestean biziko duen errealitate bat da. Hala ere, honek sufrimendua edota emozio desatseginak eragiten dituenez, gaiaz hitz egitea saihesten da eta honakoa tabua bilakatu da egungo gizartean (Diaz, 2004, Ramos-Pla, Gairín eta Camats-ek aipatua, 2018).

Baina tabu soziala izateaz gain, hezkuntza tabua ere bada (Gorosabel eta Leon, 2016), ez baitago hezkuntza ezta curriculum proiekturik hura onartu eta lantzen duenik (de la Herrán eta Cortina, 2008). Gainera, honi, beste bizi esparruetan egon daitekeen heriotzarekiko jarrera ezkorra zein beldurra gehitzen zaizkio, honen trataera saihestuz eta ondorioz heriotza bezalako prozesu natural hau haurrei ezkutatu eta ukatuaz, honek dolu positibo baten garapena zailtzen duelarik (de la Herrán eta Cortina 2008).

### **1.1. Heriotza hezkuntzan**

“Una enseñanza sin muerte es la muerte absoluta de la enseñanza, porque no tratar de lo que más importa descalifica a cualquier institución sobre el saber”

(Verdú, 2002)

Hezkuntza eraginkor batek gizaki gisa eragiten diguten gaiak landu behar ditu, bizitzaren amaiera izanik horietako bat. Honela, berau landuaz, erabateko hezkuntza eraginkor zein garapen pertsonal eta soziala lortzeaz gain, heriotza egoera baten aurrean dolu osasuntsu bat garatzen laguntzen da (Colomo, 2016).

Hurrengo lerroetan haurrak heriotzaren kontzeptua nola eraikitzen duen azalduko da, ezinbestekoa baita haurraren ulermen eta adimen gaitasunetara egokitzea heriotzaz hitz egiteko eta honela, dolu osasuntsu bat garatzen laguntzeko.

### 1.1.1 Heriotzaren kontzeptuaren eraikuntza Haur Hezkuntzan

Askotan, inguruko norbaiten heriotza gertatzen den unean, haurrak egoera honetatik bereizten ditugu, nolabait beren psikea babesteko xedez, uste baita haurrek ez dituztela beharrezko tresna kognitibo ezta emozionalik galera bati aurre egiteko. Baina uste hauek ez dira egiazkoak eta haur batek etekina atera diezaioke heriotzaz hitz egiten den inguru bati (Gorosabel eta Leon, 2016). Beraz, gaia jorratzean usteetan ez erortzeko, haurrak heriotza nola bizi duen azalduko da. Garrantzitsua da baita, haurrak adin honetan bizi duen garapen kognitiboa ezagutzea, honek heriotzaren kontzeptua nola ulertu eta eraikitzen duen jakiteko, izan ere, etapa guztietan heriotzaren aurrean emozio eta sentimendu komunak egon arren, umeak ez du heriotza helduok bezala ulertzen (Colomo, 2016).

Haurrak eraikitzen duen heriotzarekiko kontzeptua hiru faktore ezberdinen eraginpean dago, hala nola, haurrari atxikitako faktoreak (adina, izaera edota bere gaitasun kognitibo eta emozionalak), haur eta heriotzaren arteko erlazioarekin zerikusia duten faktoreak (heriotzaren zergatia, hildako pertsonarekin izandako erlazioa, etab.) eta faktore emozionalak (familiak egoera honen aurrean erakusten duen jarrera eta egonkortasuna, familia eta haurraren artean dagoen komunikazioa, etab.) (National Cancer Institute, 2013, Aranda-k aipatua, 2014).

Aditu askoren arabera haurrak hasieran ez dio beldurrik heriotzari baina pixkanaka, beldur hori garatzen du gai honek, gizartean eragiten duen estutasun eta ezinegonagatik (González eta de la Herrán, 2010). Honela, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko haurrak oraindik ez du heriotzaren kontzeptu sinbolikoa ulertzeko gaitasunik baina, heriotza galera bat da eta galera gisa sumatzen du haurrak, izan ere, jaioberritatik galera egoerak esperimendatzen ditugu gure erreferentziazko irudiarengandik banatzen garenean, adibidez (Cantero, 2013). Jaioberri denetik bi edo hiru urte izan arte haurraren heriotza kontzeptua lotuta dago pertsona zein objektuekiko duen atxikimenduekin, honela, bere atxikimendu figura hurbilenak desagertzean bihozmina sentitzen du (Díaz, 2004, Aranda-k aipatua, 2014). Era berean, haurrak bi urte dituenean, hizkuntza garatzen du eta sentitzen duenaz hitz egiteko aukera agertzen da, beraz, une honetan heriotza terminoaz hitz egiten has gaitezke (Aranda, 2014). Hala ere, haurrak adin honetan izan dezakeen heriotzarekiko kontzeptua ez dator bat helduonarekin.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko haurrak, heriotza, gertaera itzulgarria, denbora batekoa eta kanpo eragile batek sortua dela uste du. Adin honetan bere egunerokotasuna antolatzeke errutinak erabiltzen dira, ondorioz, heriotza errutina honen barruan eta kanpo eragile batek eragin duen gertaera gisa ulertzen du, hortaz, hil bezala berriz jaioko dela pentsatzen du, honen zain egongo delarik. Gainera, denbora bateko galera dela pentsatzen du, ez baitu bizi funtzioak eteten direnik ulertzen. Hau da, hilda dagoen pertsona batek jan eta arnasteaz gain, oraindik esnatzeko aukera duela uste du. Kontuan hartu beharreko beste aspektu bat, unibertsaltasuna da. Izan ere, hiru eta sei urte bitarteko haurrak, heriotza edonori gerta dakioken gertaera dela uste du, berari edo berak maite dituen inguruko pertsoneri salbu (Aranda, 2014). Canteroren (2013) esanetan, haurrak sei edo zazpi urte dituenean, ulertuko du heriotza behin betikoa dela. Hala ere, adin honetan erruntasun sentimendua garatzen du inguruko pertsona maite baten heriotzaren aurrean. Beraz, gaia hurrekin landu nahi bada, ezinbestekoa da adin bakoitzean heriotza nola ulertzen duten ezagutzea eta jarrera hauekiko ulerkor aurkeztea.

Laburbilduz, heriotzaren esanahia ulertzeko kontzeptu batzuk ulertu eta barneratzea beharrezkoa da, hala nola, unibertsaltasuna, itzulezintasuna, funtzionaltasun eza, kausalitatea eta gorpu bako jarraipena (Poch eta Herrero, 2003).

### **1.1.2 Dolua**

Dolu prozesua, galera bat onartzeko behar dugun denbora tartea da (Izagirre, 2008). Halaber, pertsona maite baten heriotzaren aurrean dugun erantzun edo erreakzioa da, beraz, mugimenduan dagoen prozesu gisa ulertu behar da, aldaketak zein adierazpen aukera anitz dituen, dolua ez baita muga zorrotzak dituen egoera estatiko bat (Posada, 2005, Echebúrua eta de la Herrán-ek, 2007; Colomo-k, 2016 aipatua). Erantzun hau bakarra eta pertsonala da eta norbanako bakoitzak bere erara bizi du, nahiz eta pertsona guztiek komunean dituzten erantzunak egon. Hortaz, dolua esperientzia globala da eta pertsoneri osotasunean eragiten die, hau da, aspektu psikologiko, emozional, sozial, fisiko zein espiritualetan (Pacheco, 2003, Colomo-k aipatua, 2016).

### **1.1.2.1 Dolu motak**

Dolu motei dagokienez, dolua ohikoa edo konplexua izan daiteke eta ez da erraza hauek bereiztea, dolu konplexu bateko adierazleak ohiko doluan ere ager daitezkeelako. Ohiko doluan, sentimendu eta sentsazio ezkorrak egoten dira, hala nola, asaldura kognitiboak edo jarrerazkoak baina ez gara dolu patologiko batez ari. Aldiz, haurrak, larritasun traumatikoa duela adierazten duenean, eta arlo sozial, emozional eta kognitiboetan asaldura larriak adierazten dituenan, dolu konplexu batez hitz egin dezakegu, norbanakoa paralizatzen duena, alegia (Gorosabel eta León, 2016). Helduon zeregina da, haurraren dolu prozesua behatzea, egoerak haurra gainditu duela antzematen badugu, esku-hartu ahal izateko.

Dolu konplexuaren barruan lau mota aurki ditzakegu. Lehenengoa dolu kronikoa da eta doluak gehiegizko iraupena duenean antzeman daiteke. Bigarrena, dolu atzeratua da, honetan haurrak, heriotza momentuan ez du erantzun emozionalik adierazten, hauek aurrerago agertzen baitira. Hirugarrena, neurritz kanpoko dolua da, honetan ohiko dolu baten agertzen diren adierazleak areagotzen dira eta egoerak haurra gainditzen duela ikus daiteke. Azkenik, dolu ezkutuan, haurrari zailtasunak suposatzen dizkion adierazleak agertzen dira baina honek ez ditu heriotza egoerarekin lotzen (Horowitz, Bonnano eta Holen, 1993, Gorosabel eta León-ek aipatua, 2016).

### **1.1.2.2 Ohiko doluaren faseak**

Ezaugarriak dituen heinean, doluak faseak ere baditu, hots, dolu prozesu batean dagoen pertsona orok bizi ditu fase hauek: ezezpina edo bakartzea, amorrua, ituna, beheraldia eta onarpena. Aipatu beharra dago, ez direla beti bost faseak bizitzen ezta orden berean ematen, baina ohikoa da gutxienez horietako bi esperimintatzea. Gainera, fase hauek pertsonaren eta momentuaren arabera ager eta desager daitezke (Kübler-Ross, 1989, Aranda-k aipatua, 2014).

### **1.1.2.3 Haurren doluaren ezaugarriak**

Jaioberriak ez du dolu prozesua esperimintatzen baina bere inguruko pertsona baten doluak haurraren ongizatean eragin dezake eta honi kutsadura emozionala deritzo. Aldiz, hamar hilabete eta hiru urte bitarteko haurraren kasuan, bere atxikimendu irudia



ez dagoenean garatzen duen sentipen eta dolu berbera adierazten du heriotza kasuetan. Ondorioz, tristura, lo arazoak edota jateko gogo eza adierazi dezake (Gorosabel eta León, 2016).

Arandak (2014) hiru eta sei urte bitarteko haurren dolua azaltzen du bere lanean. Honen esanetan, haurrak, lehenengo fasean, nahasmendua bizi du eta muturreko emozio-erantzunak dituela antzeman daiteke, hala nola, neurri gabeko negar eta aldarriak edota guztiz kontrakoa, hots, erantzun eza. Erantzun hauen aurrean, helduak ez du haurra epaitu behar, defentsa gisa garatzen dituen jarrerak baitira eta hauen kontra egitekotan, haurra guztiz itxi daiteke, honek sentimenduen adierazpena oztopatuko duelarik (Díaz, 2004, Aranda-k aipatua 2014).

Bigarren fasean, haurrak ez du ulertzen bizitzen duen banatze edo galera behin betikoa denik, hots, gertaera itzulezina, beraz, pertsonaren zain jarraitzen du eta honen ondorioz, haserre edota amorrua adierazten duten erantzunak ager daitezke. Anitz dira amorru eta haserrea adierazten duten seinaleak, hala nola, haurraren jarrera erasotzailea eskola zein familiarekiko, aldarriak, jolas bortitzak, etab. Jarrera guzti hauek defentsa gisa garatzen ditu haurrak, barnean duena nolabait askatu ahal izateko, ez baitu beste biderik ezagutzen; alde batetik, ez duelako hizkuntza ondo menperatzen eta bestetik, tresnak falta zaizkiolako sentitzen duena modu egokian adierazteko. Baina, aurrekoaz gain, aipatu beharra dago, haurrak sentitzen duen min emozionala, min fisikoa bilaka daitekeela, honela, haurrak buruko edota tripako mina senti dezake doluan zehar eta honen jatorria ez da fisikoa, emozionala baizik. Kasu honetan, helduak haurrarekin egon behar du, min hau pixkanaka desagertuko delarik (Díaz, 2004, Aranda-k aipatua, 2014).

Tristura eta nostalgia ere sentitzen ditu haurrak, eta hirugarren fase honetan, nolabait inolako kausa gabe negar sakona adierazten duela antzeman daiteke. Umeak, galdutako pertsona gogoratzean lasaitasuna bilatzen du, honetarako pertsona horrekin egiten zituen gauzak eginez. Ohikoa da, galdutako pertsona hori, segurtasuna eskaintzen dion inguruko beste norbaitekin ordezkatzeko saiatzea. Fase honetan lo egiteko arazoak, amets gaiztoak, elikadura arazoak, ezezagunenganako beldurra, muturreko lotsa edota atzerapausoak, hala nola, esfinterren kontrol eza, ager daitezke (Aranda, 2014).

Ikusi bezala, haurrak, nahiz eta heriotza helduok bezala ez bizi, egoera antzematen du. Beraz, ezinbestekoa da, galerari zentzua ematea eta haurrarekin hitz egitea honela,

abandonu sentimendua saihestuz. Egoera honetan, lagungarria da haurrak familia doluan parte hartzea, familiako parte gisa senti dadin, baita hurbileko heldu bat izatea ondoan, hots, segurtasuna eskaintzen dion irudi bat (Aranda, 2014)

Laburbilduz, dolua modu osasuntsu eta positibo batean garatzeak pertsonaren heldutasunean laguntzeaz gain, bere sormen ahalmenak estimulatzeko ditu. Era berean, frustrazioan oinarritu den edo modu egokian adierazi ez den dolu prozesu bat oso kaltegarria suerta daiteke (Thomas, 1991). Honakoa aintzat hartuz, esparru pedagogikoan, hezkuntza profesionalen papera baieztatzen da, hortaz, heriotza eta dolu egoerei ekin behar zaie.

### 1.1.3 Heriotzaren eta doluaren pedagogia

“Ez prestatu bidea haurarentzat  
haurra biderako baizik.”

(Anonimoa, d.g).

Gelan heriotzaren gaia txertatzeko bi maila bereiz daitezke. Alde batetik, heriotzaren pedagogia aurkezten da, eta bestetik, doluaren pedagogia. Heriotzaren pedagogiaz ari garenean ekintza eta esperientzia hezigarriez ari gara, eta honako gaiak jorratzen ditu: heriotzaren esanahia eta honekiko jarrera, heriotza eta dolu prozesuak eta heriotza egoera bat bizi duten pertsonenganako arreta. Honen oinarrian, heriotza arautu eta normalizatzeko beharra dago, bai pertsonak zein instituzioak baldintza egokiak izan ditzaten egoera hauei aurre egiteko (Cantero, 2013). Honela, heriotzaren pedagogia hezkuntza ekintza ezberdinek osatzen dute eta hauek, irakasleen prestakuntzan eragiten dute, heriotza kontzeptua eta honekiko dugun jarreraren aldaketa bat eragitea izanik xede nagusia. Beraz, heriotzaren pedagogia ez da egoera tamalgarri honen ondorioz gara daitekeen trauma batekiko arreta une bat (Ramos, 2006, Cantero-k aipatua, 2013). Honela, gaia jorratzen duten adituek, modu ludiko batean heriotza den gaia Haur Hezkuntzako etapatik lantzeko beharra azpimarratzen dute, bizitza osorako izango dugun ikaskuntza esanguratsu eta kooperatiboa izan dadin (Cantero, 2013).

Aldiz, doluaren pedagogia lehen sorospentako gida gisa definitzen du Izagirrek (2003), gelan sor daitezkeen krisien aurrean orientatzen lagunduko diguna. Bigarren honek,

hezitzaileei une larri baten aurrean emateko urratsak jasotzen ditu, heriotzaren trataera gelan modu eraginkorrean kudeatzea izanik honen xede nagusia.

#### **1.1.4 Hezkuntza profesionalen lana heriotzaren eta doluaren pedagogian**

Heriotzaren pedagogia martxan jartzeko, ezinbestekoa da irakasleek prestakuntza pedagogiko sakon eta zehatza izatea, gizartean eta zehazki, hezkuntza sisteman, honen inguruko ezjakintasun nabarmena baitago (Ramos-Pla et al., 2018).

Adin hauetako haurren bizitzan heriotza presente dago, hala ere, gehienetan fikziozko heriotzak dira, baina gerta liteke errealitatean ere haur batek galera egoera bat bizitzea eta honen aurrean, helduaren lana da, egoera hau irakaskuntza une apropos gisa ikustea eta haurarekin gaiaren inguruan hitz egiteko erabiltzea, egoerari aurre egiteko jarrerak garatzen lagunduz (Gorosabel eta León, 2016).

Honela, heriotza edo dolu prozesuetan modu eraginkorrean esku-hartu ahal izateko beharrezkoa suertatzen da heriotzaren eta doluaren pedagogia aurrera eramateko formazioa, lan kooperatiboa eta elkarrizketan oinarritutako ikaskuntza bultzatzea, baita, helduok gai honen inguruan ditugun beldur eta estutasun sentimenduei aurre egitea (Aranda, 2014; Ramos-Pla et. al.-ek, 2018, de la Herrán eta Cortina, 2009 aipatuz).

Zuzendaritza taldearen prestakuntzari dagokionez, badaude prestakuntza jarraitua duten kurtsoak, eztabaida- zein ikerketa-taldeak edota gaien adituak direnen aholkularitza saioak. Irakasle eta familiei dagokienez, hauek ere parte hartu dezakete heriotzaren inguruko hitzaldietan, eztabaida mahaietan, mintegietan edota role-playing jardueretan, besteak beste (Ramos-Pla et. al.-ek, 2018, de la Herrán eta Cortina, 2009 aipatuz).

Laburbilduz, galera, heriotza edo dolu egoera batean dagoen haurrak, norbait behar du ondoan, harekin bidea egiteko, bakarrik ez dagoela sentitzeko eta sentitzen duen horri hitzak jartzeko, beraz, irakasle gisa paper garrantzitsua dugu honetan, eskolan bere erreferentzia irudia izaten garen aldetik laguntza eskaini behar baitiogu. Laguntza hau ezin da inprobisazioan oinarritu, prestakuntza jaso behar da, nahiz eta gero dakigun hori egoera bakoitzera egokitu. Beraz, gai hau lantzeko ezinbestekoa da hura lantzen ikastea. Halaber, bizi osoan zehar irauten duen ikaskuntza baten aurrean gaude (Cantero, 2013).

## **2. Lanaren helburuak**

Gradu Amaierako Lan honek, Haur Hezkuntzan, heriotza naturaltasunez barneratzea du xede, hots, normalizatorako bidea eraikitzea. Halaber, Euskal Herriko irakasleen errealitatea ezagutu eta deskribatzea bilatzen da, hau da, heriotzaren pedagogiaren inguruan dituzten ezagutza, joera zein bizipenak zeintzuk diren jakitea, jarraian, galera zein doluaren lanketarako baliabide pedagogikoak eskaintzeko. Azken finean, lan honek, haurrekin lan egiten duten irakasleentzat baliabide izatea du xede, heriotzaren gaia jorrazteko orduan baliagarria izan dakien.

Hori lortzeko bidean, hurrengo azpi helburuak garatzea beharrezkoa litzateke:

1. Euskal Herrian, Haur Hezkuntzako geletan, heriotzaren lanketa egiten den jakitea eta horrela ez bada, honen atzean dauden arrazoiak ezagutu eta aztertzea.
2. Egungo Haur Hezkuntzako irakasleek heriotzaren gaiak eta honen tratamenduaz dituzten ezagutza eta jakintzak zeintzuk diren jakitea.
3. Egungo HHko irakasleek heriotzaren gaiaren inguruan formakuntzarik jaso duten jakitea eta horrela izanez gero, zein izan den ezagutzea.
4. Egungo HHko irakasleek, gelan, heriotzarekin lotutako bizipen edota esperientziarik bizi izan duten jakitea eta erantzuna baiezkoa izatekotan, egoerari aurre egiteko eta doluan laguntzeko lanabes egokirik izan duten ezagutzea.
5. Euskal Herriko eskoletan heriotza egoerekiko plan berezirik dagoen jakitea.
6. Egungo Haur Hezkuntzako irakasleek gaiari ematen dioten garrantzia ezagutzea eta formakuntza jasotzeko interesa duten jakitea.
7. Gaiaren inguruko bilaketa bibliografiko bat egitea, irakasleei heriotzaren lanketan zein doluaren alorrean baliabideak eskaintzeko.

## **3. Metodologia eta lanaren garapena**

### **3.1. Diseinua**

Hernández-ek (2018) azaltzen duen bezala, edozein ikerkuntza-lanetan, metodologia ezinbesteko tresna bilakatzen da. Honen esanetan “erantzunak bilatu egin behar dira, eta bilatze horretan nola galdetu jakitea funtsezkoa da. Itaun egokiak topatu behar dira irtenbide aproposak aurkitu ahal izateko”.

Ikerketak, jasotzen duten informazioaren arabera, bi paradigma ezberdinetan oinarrituz sailkatzen dira, honela, ikerketa kuantitatiboak nahiz kualitatiboak aurki ditzakegu. Ikerketa-lan hau aurrera eramateko azterketa kuantitatiboa erabili da, ikergaiarekin zerikusia duten pertsonen erantzunak aztergai izanik (Sarduy, 2007).

Datu horiek bilatzeko erabilitako itauna galdetegi bat da eta honen bidez, zenbakizko datuak bilatu, prozesatu eta analizatuko dira, jarraian, datu horiek sailkatzeko, horien deskribapen orokorra egiteko eta estrategia edo irtenbide aproposenak garatzeko (Sarduy, 2007).

### **3.2. Lagina**

Adierazi bezala, datuak biltzeko erabilitako prozedura galdetegi batean oinarritzen da, hain zuzen, Haur Hezkuntzako 215 irakaslek erantzun duten galdetegian. Irakasle horietatik %97,2 emakumezkoak dira, aldiz, %2,3 gizonezkoak. Nahiz eta proportzioak oso parekatuak ez izan Haur Hezkuntzako irakasleriaren isla dira.

Bizilekuari erreparatuz gero lurralde ezberdinetako irakasleen erantzunak jaso dira, hain zuzen, %45,1 bizkaitarrak, %39,1 Gipuzkoakoak, %9,3k Araba dute bizileku gisa, %5,6k Nafarroa eta %0,9 beste toki batean bizi da. Horrez gainera, honakoa da bataz besteko adina:  $M=35,3$ ;  $dt=8,19$ ; adin-tartea 21-63. Era berean, lanean daramatzaten urte kopurua ere aztertu da bataz besteko  $M=9,89$  urte izanik;  $dt=7,52$ ; urte-tartea 0-40. Irakasle gisa jardun izan dituzten urteak aztertzeaz gain, eskola motari ere erreparatu zaio eta honakoak izan dira emaitzak: %54,4k eskola publikoan, %17,7k eskola pribatu edo kontzertatuan eta %27,9k bietan.

### **3.3. Instrumentua**

Galdetegian hiru galdera mota erabili dira nagusiki. Alde batetik, egungo irakasleek heriotzaren gaiaz eta honen tratamenduaz dituzten ezagutzak zeintzuk diren jakiteko test moduko galderak erabili da, erantzunen artean bakarra soilik zelarik zuzena. Bestalde likert eskalako galderak eta galdera dikotomikoak erabili dira Haur Hezkuntzako geletan egiten den heriotzaren lanketa maila, gaiaren inguruan jasotako formakuntza eta

gaiarekin lotutako bizipen edota esperientziarik neurtzeko. Azkenik idatziz erantzuteko galdera laburra egon da formazio iturriak zehazteko.

### **3.4. Datu bilketa**

Datuak biltzeko sarean online bete daitezkeen galdeketa bat sortu da. Online izateak erraztasuna eskaintzen du irakasle gehiagoren erantzunak jasotzeko, hots, Euskal Herriko errealitatea ezagutzera ahalik eta gehien hurbiltzeko. Halaber, galdetegia euskal eskola eta haurreskola ezberdinetara zabaldu da, baita, sare sozialetan irakasleentzako sortutako talde espezifikotara ere. Galdetegia guztiz anonimoa izan da, datuak biltzean ez baita irakasle ezta eskolen izena galdetu, lanaren helburua euskal errealitatea, orokorrean, ezagutzea izan baita.

## **4. Emaitzak**

Irakasleen %77,2k Haur Hezkuntzan heriotzaren gaia lantzen ez dela uste du, aldiz, %22,8k baiezkoko erantzuna eman du. Gaia gutxi edo apenas lantzearen arrazoiei dagokionez, %51,6k gaia tabua dela adierazi du, %18,6k haurrekin horrelako gaiak lantzea, emozionalki konplexuak direnak, zaila dela uste du; %8,4ak haurrak heriotza ulertzea zaila dela adierazten du; %0,9k haurren garapen kognitiboak heriotza lantzea baimentzen ez duela dio; eta %20,5ek ez daki zeintzuk izan daitezkeen arrazoiak.

Jasotako erantzunetan oinarrituz, heriotza egoera baten aurrean haurra, nahiz eta bere erara izan, egoeraz konturatzen dela uste du irakasleen %90,7k; helduak bezala bizi eta ulertzen duela dio %7,4k; aldiz, %1,4k ez daki haurrak nola bizi dezakeen galera eta %0,5ek adin honetako haurra galderaz ohartzen ez dela adierazi du

Heriotzaren esanahia ulertu ahal izateko badaude barneratu beharreko kontzeptu batzuk, hain zuzen, unibertsaltasuna, itzulezintasuna, funtzionaltasun eza, kausalitatea eta gorpu bako jarraipena. Galdetegian jasotako erantzunetatik 47 irakaslek soilik aukeratu dute kontzeptu horiek jasotzen zituen erantzuna, hortaz, irakasleen %21,8k eman du erantzun zuzena, %34,9k txarto erantzun du eta %43,3k erantzuna ez dakiela adierazi du.

Galera baten aurrean garatzen den dolua ohikoa edo konplexua izan daiteke. Honela, ohiko doluaren faseak ezezpena, amorrua, ituna, beheraldia eta onarpena dira eta ohikoa da gutxienez horietako fase bi antzematea. Galdetegian, irakasleen %44,7k eman du erantzun egokia, aldiz, %18,6k bost faseak beti ematen direla uste du; %7,4k soilik dio bost faseak eta orden horretan ematen direla eta %29,3k ez daki zein izan litekeen erantzun egokia.

Aldiz, dolu konplexuari dagokionez, honakoak dira heriotza baten aurrean ager daitezkeen dolu konplexu motak: kronikoa, atzeratua, neurritz kanpokoa eta ezkutua. Honetan, irakasleen %14k aukeratu du erantzun zuzena, %34,4k txarto erantzun du eta %51,6k erantzuna ez dakiela adierazi du.

Dolu konplexuarekin jarraituz, haurrek galera baten aurrean ager ditzaketen erantzun ezberdinen zerrenda agertu da eta horietatik zeintzuk izan daitezkeen dolu konplexu baten adierazgarri galdetu zaie. Zerrendan zortzi erantzun ezberdin agertu dira (irakasleek nahi zituzten guztiak aukeratu ahal zituztelarik) baina soilik, horietako bi dira zuzenak. Lehena, dolu konplexu batez ari gara haurrak arlo sozial, emozional edo kognitiboan asaldura nabarmenak adierazten dituenetan eta irakasleen %60,9k aukeratu du hura dolu konplexuaren adierazgarri gisa. Bigarrena, dolu konplexua da baita haurra norbanako gisa paralizatzen denean baieztapena eta honakoa irakasleen %29,3k aukeratu du erantzun gisa. Aldiz, irakasleen ondorengo ehunekoak dolu konplexuaren seinaleztat jo dituzte berez dolu konplexuarenak ez diren seinale hauek: %40k erantzun eza; %38,1k negarra, haserrea, eta amorrua; %29,3k bakarrik egon nahi izatea; %28,8k buru eta tripako mina; %26k hasierako uneetan heriotzaren gertaera ez onartzea eta %2,8ren ustez, azaldutako seinale guztietatik bat ere ez da dolu konplexuaren adierazle.

Haurren batek galera bat bizi izanez gero, irakasleen %93k uste du garrantzitsua dela haurrak familiarekin batera doluan parte hartzea; %4,2k ez daki zer izan daitekeen onuragarria haurarentzat; %1,4k uste du hobe dela haurrak familiaren dolua ez bideztea eta haien tristura ez behatzea, eta bukatzeko, %1,4k adierazi du hobe dela eskolan haurrarekin ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeko, burua distraitu dezan.

Heriotzaren pedagogia zer den galdetean, jasotako erantzunen %52,6k dio ekintza eta esperientzia hezigarriez ari garela, honako hau izanik erantzun zuzena. Aldiz %29,3k

erantzun okerra eman du eta %18,1ek heriotzaren pedagogia zer den ez dakiela adierazi du.

Haur Hezkuntzako etapan heriotzaren gaia lantzea beharrezkoa den galdetzean, irakasleen %81,4k erantzun du beharrezkoa dela eta urteko planetan txertatuta egon beharko litzatekeela; %16,7k beharrezkotzat jotzen du soilik heriotza edo dolu kasuren bat gertatuz gero taldean eta %1,9k ez du beharrezkotzat jotzen Haur Hezkuntzan gaia jorratzea bai aldiz, Lehen Hezkuntzan, hurrek hobeto ulertzen dutela uste baita. Inork ez du uste gaia ekidin behar denik honek sor dezakeen larritasun eta ezinegonagatik.

Heriotza gertatuz gero, irakasleen %86k uste du garrantzitsua dela irakasle gisa haurrari dolua garatzen laguntzea; %11,6k familian geratu behar den zerbait dela uste duen bitartean irakasle eta orientatzailearen lana ere dela uste du; aldiz, %2,4ren ustez, heriotza egoeran orientatzailearen lana da haurra laguntzea, irakasleek ez baitute horretarako prestakuntzarik.

Aurretiaz aipatu bezala, irakasleen prestakuntza eta esperientziarekin lotutako galderak ere garatu dira, honela, heriotzaren pedagogiaren inguruan prestakuntzarik jaso duten galdetu zaie eta irakasleen %79,5ak ezezko erantzuna eman du. Baiezko erantzuna eman dutenek, hots, %20,5ak, prestakuntza mota zehaztu dute eta gehienek Unibertsitatez kanpoko ikastaroetan, adituen hitzaldietan edota lan egiten duten eskolak proposatutako prestakuntzetan parte hartu dute. Aipatu dituzten ikastaroetako batzuk haurra eta honen egoera ulertzera bideratuak daude, beste batzuk aldiz, literatura atala dute ardatz, hots, Haur Hezkuntzako gelan heriotza lantzeko ipuin ezberdinak aurkeztu eta aztertzen dira. Honakoak izan dira aipatu diren ikastaroetako batzuk: doluaren inguruko 12 orduko UEUren ikastaroa, “Nola landu heriotza ipuinen bitartez”, “Heriotza, dolua eta galera” izenekoak, “Nola bizi galerak eta dolua ikastetxeetan”, “Dolu egoeran dagoen haurra nola ulertu”, “Pedagogia sistemikoa”, “Nola planteatu heriotzaren gaia Haur Hezkuntzako ikasgeletan”, “Gestalt-en psikologia”, etab.

Hitzaldiei dagokienez, aditu ezberdinen iritzi eta jakintzak ezagutzeko aukera izan dute irakasle anitzek, honela, gaian adituak diren eta hitzaldi edota ikastaro ezberdinak eskaintzen dituzten profesionalen izenak aipatu dituzte, hala nola, Kepa Camiña, Mar Cortina edota Patxi Izagirre, besteak beste.



Aipatzekoa da, irakasle askok bere kabuz ere jakintzak areagotzen dituztela, hala nola, gaiaren inguruko irakurketa pertsonalak eginez edota Haur Hezkuntzako gradua bukatzean, heriotza eta doluaren inguruko gradu-ondokoa burutuz, jasotako erantzunetako batek Counseling-eko gradu-ondokoa aipatzen baitu.

Erantzun gehienak Unibertsitatez kanpo jasotako prestakuntzan oinarritzen badira ere, badaude Haur Hezkuntzako graduan bertan ere heriotzaren gaia jorratzeko aukera izan dutenak, bai Gradu Amaierako Lana heriotzaren inguruan egin dutelako, baita gaiaren inguruko ikerketa lanetan parte hartu dutelako edota literatura arloan heriotza lantzeko ipuinak ezagutu dituztelako. Halaber, gaiaren inguruko prestakuntza jasotzea gustatuko litzaiekeen galdetu zaie eta %99,1ak baiezko erantzuna eman du.

Bukatzeko, irakasle gisa heriotza eta dolu egoerarik bizi izan duten galdetu zaie eta %62,3k honelako esperientziarik bizi ez badu ere, %37,7k galera esperientzia bat izan du gelan, eta galera bizi izan duten horien artean %63,3k ez du lanabes egokirik izan haurren doluan laguntzeko. Era berean, lanean dauden eskolan heriotza egoera batean aurrera eramateko plan berezirik dagoen galdetzean %90,7k ezezko erantzuna eman du eta honekin lotuta, %91,2k uste du hezkuntzan, heriotzari ez zaiola honek duen garrantzia ematen.

## **5. Praktika on edo proposamenak**

Emaitzetan jasotako erantzunetan beraz, argi sumatu da jarduneko irakasleek lanabes falta nabarmena dutela eskura dolu, heriotza edo galera egoerei aurre egiteko orduan. Hori horrela izanik, Gradu Amaierako Lan honek probestutako aukera baliatu nahi izan du gaiaren berrikuspen bat eginaz dauden proposamen nagusiak laburbiltzeko, horrela beharrezko lukeenak informazioaren mugarri nagusiak eskura izanik.

Oro har, dolu eta galeren lanketara bideratutako gomendio edota lanabesetan bi esku-hartze proposatzen dira. Alde batetik, heriotzaren pedagogia dugu, hots, heriotzaren eta bere esanahiaren kontzientzia hartzera bideratutako baliabideak. Eta, bestetik, doluaren pedagogia, gelan sor daitezkeen krisien aurrean orientatzen lagunduko diguten proposamenak, hau da, heriotza gertatu ondorengo egoeretan haurrei galera hura azaltzeko irizpide orokor batzuk zehazten dituen (Izagirre, 2003). Izan ere, lan honen helburua ez da irtenbide bakar bat proposatzea, kasu bakoitza berezkoa baita, aitzitik,

geletan heriotza normalizatzeko bidea eraikitzen hasia bilatzen da, edota galera gertatu deneko haurren doluren garapenean eta gertaeraren ulerkuntzan laguntzea.

### 5.1. Heriotzaren pedagogia edo alde aurretiko lanketa

Heriotzaren pedagogia edo aurreneko esku-hartze hezitzailea deritzo, heriotzaren gaia curriculumean didaktikoki lantzeko proposamenari. Izan ere, jakin badakigu denok hilko garela eta hura normalizatzera bidean, era didaktikoan, horri buruz hitz egiteko aukera eskaini behar zaio haurrari txikitatik, heriotzaren egiazko izaeraz ohartzeko eta egoera saihestezin horretarako prestatzeko (Izagirre, 2008).

Anitz dira autore ezberdinek proposatzen dituzten jarduera zein baliabideak heriotza gaia gure ikasgeletan txertatzeko. Hala ere, guzti horietan sentimenduak azalertzeko aukera emango duen konfiantzazko giroa sortzea ezinbesteko premia da (Uriarte, 2019). Gainera, proposatzen den dinamika orotan ematen den informazioa adinari egokitu izan beharko da, haurraren erritmoa errespetatuz eta beti egia esanez, hortaz, garrantzitsua da, baliabide zein ekintzak hauek, ikasle bakoitzaren ezaugarri eta beharrezkoen arabera erabili eta uztartzea, helburu nagusia izanik haurraren ongizatea.

- **Proiektu, interesgune eta ikerketa txikiak.** De la Herrán eta Cortinak (2008) adierazten dutenez, geletan heriotzaren gaia txertatzeko ikerketa ezberdinak gara daitezke. Honetarako, adibidez animalia, pertsona edota landareen bizi-zikloa landu daitekeelarik gelan Haur Hezkuntzatik hasita.
- **Jolas sinbolikoa eta antzerkiak.** Haur Hezkuntzako etapan antzerki eta jolas sinbolikoak duen presentzia aintzat hartuz, baliagarria izan daiteke beraietan dolu egoerak txertatzea hauen lanketa burutzeko (de la Herrán eta Cortina, 2008). Izan ere, haurrak antzeztean bere pertsonaiaren paperarekin bat egiten du eta gorputz adierazpenaren bidez, emozioak askatzen ditu (Uriarte, 2019).
- **Filmak.** Uriarte-ren esanetan (2019): “filmek eskaintzen duten berebiziko ikus inpartuari eta soinuen efektuari esker, ikasleen bizipenak esnaraztea ahalbidetzen da. (Uriarte, 2019).
- **Musika eta artea.** Sormenaren bidez barne zein kanpo munduaz ohartzeko ikuspegi zabalagoa eraikitzen du haurrak, hots, arazoak beste ikuspegi batetik antzemanaz. Haurrak, noiz behinka, aukera izan behar du askatasunez margotzeko, bere barnean dituen eta adierazteko zeharo zailak diren emozio horiek kaleratzeko aukera izan dezan (Uriarte, 2019).

- **Ipuinak eta album ilustratuak.** Bettelheimen (1997) arabera, ipuinek gizakion arazo unibertsalak lantzen dituzte, errealitatearen errepresentaziorako instrumentu garrantzitsua bilakatzen direlarik. Honela, haurren hezkuntza optimoa lortzeko ipuinak ezinbestekoak dira, hauetan agertzen diren arazoak eta hauen aurrean garatzen diren irtenbideak eredu bilakatzen baitira bizitza errealeko egoeretan (Cashdan-ek, 2000; Colomok aipatua, 2016). Honela, haur-literatura tresna pedagogiko baliagarria bilakatzen da dolu egoera posibleen aurreko bitarteko gisa. Ideia honetan oinarrituz anitz dira aditu ezberdinek izendatzen dituzten albumak (Ikus 1.eranskina).

## 5.2. Doluaren pedagogia edo galera uneetako lanketa

Doluaren pedagogia edo esku-hartze aringarri deritzogu, heriotza ondoren ematen den laguntzari. Modu baikorrean garatutako doluak pertsonen heltze prozesuan laguntzen du, eta honetan zeregin garrantzitsua dute hezitzaileek (Thomas, 1991). Izan ere, gelako irakasleak gertaera honetan mina sentitzen duenaren ondoan presentzia osoz egon behar du eta aurkezten zaizkion beharrak ase behar ditu, honetarako beharrezkoa izanik, hurbiltasunez entzutea, laguntzeko prest agertzea, erraztasunak nahiz informazioa eskaintzea, egoera normalizatzen laguntzea, etab. Hiru hitzetan laburtu daiteke irakasleak izan beharreko jarrera: naturaltasuna, egitasuna eta zintzotasuna (Andonegi et al., 2014). Esan beharra dago, doluaren pedagogia aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa dela hezitzaileek formakuntza pedagogikoa jasotzea esku-hartze programatu eta justifikatu bat antolatzeke eta inprobisazioetan ez erortzeko (Ramos-Pla, Gairín eta Camats, 2018). Halere oinarritzko gomendio gisa ondorengoak jarrai litezke:

- **Heriotza onartzea eta gauzak izan diren moduan ahalik eta modu sinpleenean azaltzea.** Pertsona bueltatuko ez dela transmititu behar du irakasleak. Honek, denbora bat iraun dezake onartze intelektual eta emozionala eskatzen duen prozesua izanik (Worden, 1997, Colomo-k aipatua 2016).
- **Erritoetan parte-hartzea.** Haurrak aukera izango du doluaren erritoetan parte hartzeko, betiere hark nahi izanez gero eta bere erara eginez. Lagungarria da hildakoa marrazkiekin edota grabazio bidez agurtzea (Izagirre, 2018).
- **Neurrigabeko informazioa ekiditea.** Adin txikikoentzat egokiak ez diren filmetatik heriotzari buruz jasotzen duten gehiegizko informazioa ekiditea

ezinbestekoa da, antsietatea eta irudimenezko ezbeharrekiko beldurra saihesteko (Izagirre, 2018).

- **Ez saihestu heriotza hitzaren erabilera.** Hezitzaileak heriotza kontzeptua normalizatua izan behar du, honek lagunduko baitio egoerarekiko ezezpene eta beldurra ekiditen. (Ramos-Pla, Gairín eta Camats, 2018).
- **Emozioak adierazteko aukera eman eta giro segurua sortzea.** Irakasleak segurtasun fisiko eta emozionala eskainiko dio haurrari. Honetan eredu izango delarik, bere emozioak azaleratuz (Andonegi, et al., 2014).
- **Irakaslearen laguntza jarrera, hots, laguntza hezigarria.** Ezinezkoa da doluaren aurreko erantzun unibertsal bat eskaintzea baina ideia nagusi bat aurkeztu daiteke, hots, haurraren beharrezanetara egokitzea eta horiek erantzuteko prest agertzea (Colomo, 2016). Betiere, haurrak galdetzen duen puntura arte informatuz (Izagirre, 2018).
- **Hildako pertsonari toki berri bat eskaintzea.** Irakaslearen laguntzarekin batera, haurrak bere bizitza emozionalaren alderdi bat eskainiko dio hildako pertsonari, norbere bizitzarekin aurrera egin ahal izateko. Ez datza pertsona hori ahaztean baizik eta emozionalki birkokatzean (Colomo, 2016).
- **Haurrak, heriotza ulertzeko txikiegiak direnaren ideia edo estereotipoa desmitifikatzea.** Haurrak, heriotza sentitzen du eta honek eragindako dolua esperimendatzen du. Hortaz, irakasleak txikiegi denaren ideia ezabatu eta haurraren garapen-etapara egokitutako azalpenak eman beharko ditu (Ramos-Pla, Gairín eta Camats, 2018).
- **“Oso” bezalako aditzondoaren erabilera.** Heriotza gaixotasun baten ondorio izan bada, lagungarria izan ohi da “oso oso oso gaixorik zegoen” adieraztea. Aditzondo hura erabiltzen ez bada haurrak gaixotzen denean hiltzearen beldur izan dezake, hau da, heriotza edozein momentutan hel diezaiokkeenaren ustea beregan dezake (Ramos-Pla, Gairín eta Camats, 2018).
- **Naturaltasun eta errespetu didaktikoaren printzipioa.** Haurrak, prozesu honetan bere aurkikuntza propioak izango ditu eta irakaslea, haurrak behar duenerako, ondoan egongo da, baina ez du inolako aurkikuntzarik aurreratuko (de la Herrán eta Cortina, 2008). Autore hauek printzipio anitz aurkezten dituzte bere lanean (Ikus 2.eranskina).

### 5.3. Protokolo eta gidak

Horrez gainera, emandako informazioaren osagarri gisa, aditu ezberdinek garatutako protokoloak ere badaude. Gorosabel eta León-ek (2016), *La muerte en educación infantil: algunas líneas básicas de actuación para centros escolares* lanean, dolu nahiz heriotzaren pedagogiaren inguruko protokoloa garatu zuten eta baita Andonegi, Ormazabal, Pascual, Rosas eta Ugalde-k (2014) ere. Era berean, Eusko Jaurlaritzak (d.g) eskolabakeguneak, bizikidetza positiboaren atalean *Doluairen pedagogia ikastetxean martxan jartzeko aholkuak* izeneko dokumentua argitaratu du, galera egoeretan lagungarri izan daitezkeen hainbat gakorekin

## 6. Ondorioak

Bizitza eta heriotza elkarri lotuta daude, beraz, ikasleak bizitzarako prestatu nahi baditugu ezinbestekoa da heriotzarako prestatzea, norbanako gisa aurkezten zaizkion arazoei aurre egin ahal izateko (de la Herrán eta Cortina, 2008). Hortaz, haurrak bizitzan hezten ditugun bezala, heriotzarako ere hezi behar ditugu, kontzeptu biek elkar osatzeaz gain, elkar ematen diotelako zentzua batak besteari. Heriotzan heztea, bakerako heztea, baloreetan heztea eta norbanako izateko zein gizartean elkar bizitzeko heztea da, ikaskuntza hauek ezinbestekoak izanik pertsona ororen bizitzan (Cantero, 2013).

Hala ere, ikerketa honen emaitzek argi utzi dute, parte hartu duten irakasleen gehiengoak doluari eta heriotzaren pedagogiari buruzko hainbat oinarrizko galdera erantzuteko zailtasunak dituztela. Horrez gainera, irakasleriaren gehiengoak, haurrak heriotza egoera, nahiz eta bere erara izan, hautematen duela adierazi badu ere, orokorki ez daki heriotzaren esanahia ulertzeko haurrak barneratu beharreko kontzeptuak zeintzuk diren. Era berean, zailtasunak izan dituzte ohiko dolua eta dolu konplexua bereizteko, horiek identifikatzeko ezagutza nahikoa ez dutela agerian utziaz.

Gaiaren trataerari dagokionez eta irakasleek eginkizun handia badute ere, aipatu beharra dago, instituzioek ere tresna edo lanabes egokiak garatu behar dituztela, izan ere, eta galdeketa bitartez lotutako emaitzek adierazten duten bezala, irakasleriaren %37,7k dolu egoera bat bizi izan du gelan eta honen aurrean erdiak baino gehiagok ez du lanabes egokirik izan hurren doluan laguntzeko. Izan ere, hezkuntza munduan jarduten duten

profesionalen %91,2k uste du hezkuntzan, heriotzari ez zaiola honek duen garrantzia ematen nahiz eta gehiengoak garrantzitsua dela adierazi. Gainera, gaiaren inguruko formakuntza jasotzeko aldeko jarrera adierazi dute, hortaz, ez dago aitzakiarik heriotzari hezkuntzan dagokion lekua ez eskaintzeko.

Beraz, eta heriotza eta dolu kasuak hezkuntza fase guztietan ematen direla nabarmena izanik, ezinbestekoa da hauen aurrean irakasle gisa lanabesak izatea, eta instituzioek protokolo eta proposamenak jarri beharko lituzkete irakasle horien esku, haurren dolu osasuntsua garatzen lagun dezaten. Hala ere, gutxi dira heriotzaren pedagogia eskoletan txertatzera bideratuta dauden ekimenak eta, irakasleek ez dute prestakuntza pedagogiko ezta tresna nahikorik gaiari heltzeko (Gorosabel eta Leon, 2016).

Lan honetan eta bilaketa bibliografiko bat egin ostean, ikastetxea heriotzaz aritzeko toki aproposa dela ondorioztatu da, heriotzaren pedagogiak onura anitz ekar baititzake ikasleen garapen integralean. Aurrekoarekin lotuta, gure emaitzek islatu dute irakasleen gehiengoak heriotza Haur Hezkuntzako etapatik lantzearen nahiz irakasleak, haurrari doluaren garapenean laguntzearen garrantzia barneratua duela. Baina aipatu berri dugun hezkuntza hori burutzeko ezinbestekoa da ikasteko prest dauden profesionalak izatea eta horretarako beraien trebetasun eta gaitasunak hobetzeko xedez, prestakuntza jaso beharko lukete, heriotzaren inguruko ezagutzak barneratzeko eta honen trataera kudeatzeko behar beste baliabide izateko (Colomo, 2016). Izan ere, kopuru handi batek prestakuntzarik jaso ez duela adierazi du eta galdetegiaren erantzunei erreparatzen badiegu %47,4k ez daki zer den heriotzaren pedagogia. Hala ere, eta datu baikor gisa, galdetegia burutu duten irakasleen %99,1ari heriotzaren pedagogia inguruko prestakuntza jasotzea gustatuko litzaioke.

Prestakuntza jarraituaren oinarri gisa irakasleek, eskolan, heriotza lantzeko pedagogia bi daudela ezagutu beharko lukete eta horiek garatzea izan da lanaren xedeetako bat. Lehenengoa, heriotzaren pedagogia, hots, prebentzioan oinarrituta. Helburua, haurrak gertaera honen inguruko kontzientzia garatzea da, alde batera utziz, beldurrak, epaiketak, mitoak, etab. Honela, heriotza gertaera baten aurrean ezagutza eta trebetasun nahikoa izango dutelarik honi modu osasuntsu batean aurre egiteko. Hau da, hezkuntza ikuspegi berritzaile honek eskola proiektuetan heriotzaren pedagogia txertatzearen aldeko ekimena bultzatzen du, heriotza izanik hezkuntza erreal bat proposatzeko bidea

eta honi esker curriculumeko bestelako aspektuak landu daitezke, hala nola, osasuna, filosofia, zientzia natural eta sozialak edota erlijioa (Ramos-Pla et al., 2018). Bigarrena, doluaren pedagogia edo esku-hartze aringarria, hots, heriotza egoera baten aurreko esku-hartzeari erreferentzia egiten diona (de la Herrán eta Cortina, 2008).

Honako bi pedagogia motak garatu dira marko praktikoa baina aintzat hartu behar da helburua ez dela aholku itxi eta zorrozdun zerrenda bat egitea, egoera bakoitza ezberdina baita. Pedagogia hauen xede nagusia, haur eta familiekin elkarlanean aritzea da, egoera hau prebenitzeko edota gertatzen den momentuan hura kontrolatzen eta irakasle gisa jarduten jakiteko, modu programatu eta justifikatu batean (Cantero, 2013). Honetarako, ezinbestekoa da haurren hezkuntzan eragiten duten pertsonen elkarlana, inplikazioa eta komunikazioa, honela, prestatuko baikara dolu osasuntsu baten garapenerako. Izan ere, irakaslea haurrak onartzen duen pertsona da eta erreferente honek duen gidaritzza, jarrera, portaera, erabilgarritasun eta ikaslearengan eragiteko gaitasunari esker, aukera du haurrari harekin bidea egin nahi eta ahal duela transmititzeko. Helburu nagusia izanik, doluaren gainditze baikorra lortzea (de la Herrán eta Cortina, 2008).

Beraz, lan honetako ekarpenek islatutako gisara hezkuntza politiketan zein ikastetxeetako hezkuntza proposamenetan heriotzaren trataerari leku bat eskaintzea ezinbesteko premia bilakatu da. Izan ere, heriotzaren zein doluaren garapenaren inguruko ezagutza eta ikaskuntza egoki batek gizatasun zentzua garatzen laguntzen du, hau da, pertsona giza hobetzen laguntzen gaitu (Ramos-Pla et al., 2018). Beste era batera esanda, heriotzaren pedagogiaren ideia curriculum proiektuetan, egokitzapenetan, unitate didaktikoetan, eskola proiektuetan eta curriculum ofizialeko programazioetan islatu behar da (Arnaiz, 2003).

Hortaz, honi esker haurraren independentzia, sormena eta adimenaren garapena trebatzeaz eta adimen emozionalean sakontzeaz gain, heriotzaren pedagogia lantzeak baditu bestelako abantailak ere, ikaslearen hezkuntza prozesuko gainontzeko alor zein eremuetan eragiten dutenak. Honela heriotzaren pedagogiak, komunikazioa eta trebetasun sozialak hobetzen ditu, eskubideekiko eta aniztasunarekiko errespetua sustatzen du, berrikuntza zein esku-hartze errealista, interaktibo eta solidarioak bultzatzen ditu, balore eta jarrera baikorren garapenean eragiten du, enpatia garatzen

laguntzen du, erabakiak hartzea ahalbidetzen du, egokitzeko gai diren herritarrak sortzen ditu eta profesionalen etengabeko prestakuntza bultzatzen du (Cantero, 2013).

Bukatzeko esan beharra dago, babestea ez dela bizitzen ari dena ukatzea, baizik eta behar duen erritmoan eta bere neurrian eskatzen duena eskaintzen joatea, akonpainamendu lan hori izango delarik hezitzailearen funtsa eta lan honen bidez plazaratu nahi izan den hezkuntza eginkizuna.

## **7. Etika profesionala eta datuen babesa**

Honako lana burutzeko etika profesionalaren printzipioak errespetatu dira. Honela, oinarritzko eskubideen esparruan jardun da lana aurrera eramateko. Era berean, lanaren objektua direnen autonomia eta askatasuna errespetatu dira, hala nola, galdetegia burutu dutenean. Honakoan, datuen babesa eta konfidentziasuna errespetatu da, aintzat hartuz, galdetegia anonimoa dela eta jasotako informazioa partekatuz gero, pertsona horiek eta zehazki, komunitatearen onerako egingo da. Betiere, oinarri etikoetan eta legezko arauetan oinarriturik.

## **8. Erreferentzia bibliografikoak**

- Andonegi, I., Ormazábal, T., Pascual, A.M., Rosas, R. eta Ugalde, A. (2014). *Dolu prozesuetan Hezkuntza Jarduerak egiteko Orientabideak*. Donostia: BIDEGIN.
- Aranda, C. (2014). *El duelo infantil en la escuela: protocolo de intervención*. Logroño: Universidad Internacional de La Rioja.
- Arnaiz, V. (2003). Diez propuestas para una pedagogía de la muerte. *Revista Aula de Infantil*, 122, 59-61.
- Bettelheim, B. (1997). *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Barcelona: Crítica.
- Cantero, M. (2013). La educación para la muerte. Un reto formativo para la sociedad actual. *Psicogente*, 16(30), 424-438.
- Colomo, E. (2016). Pedagogía de la Muerte y Proceso de Duelo. Cuentos como Recurso Didáctico. *REICE* 14(2), 63-77.
- De la Herrán, A. eta Cortina, M. (2008). La educación para la muerte como ámbito formativo: más allá de duelo. *Psicooncología*, 5, 409-424.



- De la Herrán, A. eta Cortina, M. (2008). La práctica del “acompañamiento educativo” desde la tutoría en situaciones de duelo. *Tendencias pedagógicas*, 13, 157-173.
- Eusko                                  Jaurlaritzako                                  Web                                  Orriadea.  
<http://www.eskolabakegune.euskadi.eus/eu/web/eskolabakegune/materiales-para-trabajar-las-perdidas-y-el-duelo> – tik berreskuratuta.
- González, I. eta de la Herrán, A. (2010). Introducción metodológica a la muerte y los miedos en educación infantil. *Tendencias Pedagógicas*, 15 (1), 124-149.
- Gorosabel, M. eta León, A. (2016). *La muerte en educación infantil: algunas líneas básicas de actuación para centros escolares*. Logroño: Universidad Internacional de la Rioja.
- Hernández, A.M. (2018). *Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarritzko hurbilpena*. Auñamendi Entziklopedia [on line] [Kontsulta data: 2020ko Maiatzaren 22a]. Eskuragarri hemen: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntzak-aztergai-ikerketa-metodoetara-oinarritzko-hurbilpena/ar-152152/>
- Izagirre, P. (2003). Heriotza heziketan: bizitzarako hezi, heriotzarako hezi. *Hik Hasi*, 12.monografikoa.
- Izagirre, P. (2008). Haurrei heriotzaren aurrean minaren adierazpena normalizatzen erakutsi behar diegu. *Hik Hasi*, 130, 14-21.
- Izagirre, P. (2018). Heriotzaren lanketa. Bizitza kontzienteagoa egiteko. *Hik Hasi*..
- Poch, O. eta Herrero, O., (2003). *La muerte y el duelo en el contexto educativo. Reflexiones, testimonios y actividades*. Bartzelona: Paidós Ibérica.
- Ramos-Pla, A., Gairín, J. eta Camats, R. (2018). Principio Prácticos y Funcionales en Situaciones de Muerte y Duelo para Profesionales de la Educación. *REICE*, 16 (1), 21-33.
- Sarduy, Y. (2007). El análisis de información y las investigaciones cuantitativa y cualitativa. *Revista Cubana de Salud pública*, 33(3), 1-11
- Thomas, L. V. (1991). *La muerte*. Bartzelona: Paidós Studio,
- Uriarte, A. (2019). *Hezkuntza eta dolua: doluaren lanketa pedagogikorako bidea eraikiz*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Verdú, V. (2002, uztailak 5). La enseñanza del Fin (2002). *El País*. [https://elpais.com/diario/2002/07/05/sociedad/1025820004\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2002/07/05/sociedad/1025820004_850215.html) –tik berreskuratuta.